

OIARTZUN

OIARTZUNDIK BARRENA



Egileak:

CHAMPIONS

LH5-C



Ikastolen Elkartea

OIARTZUN gozatu

Katixa



Aurkezpena

Kaixo lagunok! Ni Katixa naiz. Ni txori laguntzailea naiz, niri besteei laguntzea asko gustatzen zait. Ni beti laguntzeko prest nago. Jakin-min handia dut, betidanik izan dut gauza berriak ezagutzeko gogo bizia.

Welcome!

Â¡Ven y disfruta de una experiencia inolvidable!

Ongi etorri gure herrira!

Presentación

Â¡Hola amigos! Me llamo Katixa. Soy un pájaro ayudante. A mí me gusta mucho ayudar a los demás. Pero también soy un pájaro muy curioso. Desde siempre he tenido interés en descubrir cosas nuevas.

OIARTZUN

begirada batean

Kokapena

Oiartzun, Euskal Herriko ipar ekialdean dago, Gipuzkoan. Mugakideak Errenteria, Lezo, Lesaka, Goizueta eta Irun ditu.



Erliebe-elementuak

Oiartzun ibaia pasatzen da Oiartzundik. Mendi dezente ditu ondoan, adibidez: Aiako Harria, Bianditz, Arditurri, Pikoketa, ...

Bestelako informazioa

Oiartzunen ospetsu asko daude eta zeuden. Hemen adibide batzuk:

Baserri lehiaketako Amalur Arbelaitz, Go!azen eko Koldo (Julen Castillo) aktorea, Xabier Lete abeslaria, Juanito Arozena txistularia, Joxe Manuel Etxarte txondorgilea, Ander Imaz pelotaria, Alaitz eta Maider musikariak, Ane Asensio kirolaria, Izaskun Zubizarreta mendi lasterketaria, Irabazi arteko Itsaso (Ane Garmendia) aktorea, Antton Kazabon idazlea

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

OIARTZUN IBAIA



Oiartzun ibaia Gipuzkoan jarioan dabilen ibairik motzena dugu. Haren arroak 82,27 km²-ko eremua hartzen du: Oiartzun, Errenteria, Lezo, eta Pasaiako herriak zeharkatuz eginiko ibilbideak 16 km eskasean, lau herri horietan bizi diren 80.000 bat biztanleren eta Gipuzkoako industriegune esanguratsuenen eta merkataritza portu nagusiaren eragina du.

Txikia baina garrantzi handikoa da. Oiartzun ibaiaren bailara Paleozonikoan (orain dela 380 miloi bat urte) hasi zen eratzen, Euskal Herriko bailara zaharrenetarikoa dela esan daiteke.

Ibaia oso kutsaturik izan da urte askotan. XX. mendearen bukaeran eta XXI.-aren hasieran, hala ere egoerak hobera egin du.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

Mendibilgo Txara parkea



Mendibilgo Txara Elizalde eta Ugaldetxo auzoen artean dago. Baso handi bat eta belar pila bat dago. Txara leku oso berezia da leku hori jolasteko, bazkaltzeko, txangoak egiteko eta txabolak egiteko erabiltzen dugulako.

Txaran animalia asko daude, adibidez: zatorrak, kakalardoak, amona mantangorriak, inurriak, armiarmak, ... Landareak ere dezente daude, adibidez: perretxikoak, haritzak, huntzak, sasiak, ... Zaindu beharreko espezieak okila eta gorostia dira.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

SAN ESTEBAN ELIZA



San Esteban eliza Oiartzunen dago Elizalde auzoan. 1629-1642 bitartean egindakoa. Erainkuntzak atikoa, lehenengo gorputza, bigarren gorputza eta hirugarren gorputzaz osatuta dago.

Lehenengo gorputzean, Artzainen jaurespena eta Errege magoen jaurespena pasarteak daude. Bigarren gorputzean, San Joan Bataiatzailea eta San Antonio daude. Azken gorputzean San frantzisko borjako eta San Felipe daude.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)


OIANLEKUKO CROMLECHA



Cromlech hau Oianlekun (Oartzunen) dago kokatua. Lehen gizakiek sortua da. Guk hilerriak erabiltzen ditugu, baina beraiek lurazpian sartu eta harri bat jartzen zuten gainean. Horri deitzen zaio cromlecha.


Euskal Herrian ondoen kontserbatutako cromlechetako bat da, eta bi zirkuluz osatuta egotearen berezitasuna du. Lehenengoa 9,5 metroko diametrokoa eta 29 lekukoarekin, bigarren 6,8 metroko diametrokoa eta 18 lekukoz osatua dago.

Zirkuituaren mapa



Legenda

Norabidea



Erreferentzia-puntua



Abiapuntua



Interesguneak



Helmuga



Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren lehen urratsa



- Haurtzaro ikastolatik Mendibilgo Txara parkera joateko.

Deskribapena

Joan Sibeluts kaletik aurrera ikastola eskuin aldera utzita. Lehen bidegurutzean egin ezkerrera. Ondoren, jarraitu ezazu aurrera, bigarren bidegurutzean hartu ezazu ezkerrera, aurrera jarraitu eta gozatu Mendibilgo Txaraz!

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren bigarren urratsa



- Mendibilgo Txara parketik Oiartzun ibaira joateko.

Deskribapena

Biratu ezkerrera eta joan aurrera. Han, joan eskuinera, eta aurrera joaten bazara aurkituko duzu (bigarren interesgunea) Oiartzun ibaia. Gozatu Oiartzun ibaiaz!

Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



- Oiartzun ibaitik San Esteban elizara joateko.

Deskribapena

Joan etorri zaren tokitik, lehen bidegurutzean hartu eskuinera. Bigarren bidegurutzean hartu ezkerretara eta jarraitu aurrera. Ondoren, ikastola eskuinaldean eduki beharko zenuke. Okindegia pasa, zebra bidea gurutzatu eta malda gora joan. Malda bukatzean, biratu eskuinera eta eman hogeit bat pausu aurrera. Jarraian, biratu ezkerretara eta joan aurrera zure ezkerrean eskailera batzuk ikusi arte. Gero, igo eskailerak eta gozatu elizaz!

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren laugarren urratsa



San Esteban elizatik Oianlekuko harrespiletara joateko.

Deskribapena

Kotxea beharko duzu. Hegoaldera joan, biribilgune batekin topo egin arte. Biribilgunean, biratu oso gutxi eta hartu lehenengo irteera ezkerrera eta jarraitu aurrera. Handik pixka batera, biratu ezkerrera eta joan aurrera Oianlekuko Harrespilara iritsi arte. Gozatu harrespiletaz!

Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



Oianlekutik Ikastolara joateko.

Deskribapena

Oianlekuko harrespiletatik Ikastolara itzultzeko kotxea hartu eta Oiartzun herrira bueltatu. Altzibar auzoa eskubitan utzita, bigarren semaforora iritsi baino lehen, eskubira biratu eta 100 metrotara dagoen zubia pasa ondoren, biribilguneko bigarren irteera hartu, Elorsoro Kiroldegia ezkeran pasako duzu. Hurrengo biribilgunean, hirugarren irteera hartu eta Ikastolako aparkalekuan izango zara berriro. Gozatu Oiartzundik barrena!

Bisitarientzako gomendioak

Mendira bazoaz, arropa erosoak eramatea gomendatzen dizugu.

Zaborra dagokion zaborrontzitan bota.

Cuando haga mucho calor, ve a bañarte al río Oiartzun.

Si tienes perro, llévalo con correa en los sitios cerrados.

Do not throw rubbish to the ground!

Come and take photos of Oiartzun!